

» DISKOA

# Dantza egiteko gasolina



Iker Barandiaran  
@IkerBarandiara

Gose taldeak oso ibilbide luzea egin du, sorreran askok espero genuena baino emankorra goa. Zeretik hasi zen taldea, trikia eta elektronika batera askatzen, proposamen desberdinak sortzen eta eskaintzen, eta jantzi goxoaz bazen ere, probokatzen eta gauzak argi esaten. Ia oharkabean beraien lekua eraiki zuten eta asko izan ziren lortutako gailurrak. Izan ere, lorpen oso bitxiak izan zituzten, distantzia hartuta perspektiban ikusi beharko ditugunak. Baina, era berean, urte gogorak izan dira, erritmo bizikoak, geldiezinak... eta azkenean heldu zen atsedena hartzeko unea, gaindituta; ilusioa eta jakinmina direlako benetako gasolina. Gasolina gabe ez dago dantza egiterik.

Tarte honetan horietako batzuek gasolina batu dute eta, errazena Gose berpiztea bazen ere, beste motore bat jarri dute martxan, oraingoan ere zeretik hasita eta probokatu nahian. Anita Parker izen enigmatikoaren atzean Iñaki Bengoa eta Jon Zubiaga Osoron arrasatearrak daude, eta beraiekin batera Skalariak taldeko sortzaile Olatz Andueza lakuntzarra eta Zango taldeko Ane Martinezek bilbotarra.

Sei kanta batu dituzte estreinako disko honetan eta beste horrenbeste talde berria zuzenekoetara ikusi eta entzutera joaten diren entzatzat gorde dituzte. Elektronika presente dago, jakina, baina honi bestelako soinuek hartu diote aurrea; bereziki swingak. Hala, *Orain eta beti* jostaria da, jai girokoa, swingak barra-barra kutsatzen duena, bonbardinoak indartuta eta gogora dakar, halabeharrez, Gosereren tankeraren parrandero eta zirkoeroena. *Entzun gabe*

## Anita Parker

ANITA PARKER

Mauka, 2017

*Iñaki Bengoa, Jon Zubiaga  
Osoron, Olatz Andueza  
eta Ane Martinezek osatzen  
dute Anita Parker taldea.*



aldiz, intimoago hasten da, *Wicked games*-en tenorean, eta elektronikak pisua hartzen duen heinean dantzaleku erdira eramaten zaitu. *Michelle* hit!a da, elektroswing hutsa, gitarra aberatsak lagundu eta soulerantz ere amiltzen dena. *Amaia* barnerakoia da, Amaia Apaolaza lagunari eskainitako pop elektroniko pieza sarkorra. *Izar gorria*-k ere swinga dauka oinarri, oso jostaria da, baina gitarren pisuarekin ukitu amerikarra ere hartzen du nabarmen. Diskoa ixtearen ardura *Bitxo* mugaldekoko piezak dauka, eta pausatua eta beroa, Kubara ere eramaten gaitu. Lana motza egin zait, baina ziur epe laburrerako sorpresaren bat izango dutela besopean! ■

